## Editorial

# Pyrenaica guztion eskura

*AURRERA goaz. Izan ere, Pyrenaicako irakurleok aldizkariaren ondare aberatsaz baliatu ahal izango gara aurrerantzean mugarik gabe.*

*XXI. mendeak digitalizazioaren abiaburua markatu du. Egunetik egunera, datu-base dokumentalak handitzen ari dira, ordenagailuekin harremanak izateko erak aldatzen eta multimedia sistema guztiak digitalizatzen. Horren ondorioz, ezinbestekoa da informatika bitartez lantzeko bideak aztertzea eta Informazio eta Komunikazioaren Gizartea esaten diogun horretan geure lekua bilatu eta kokatzen hastea.*

*1926an Pyrenaica aldizkaria argitaratzen hasi zenetik gaur arte hiru etenaldi izan baditu ere, XX. mendean zehar euskal mendizaletasunaren bozeramaile izan dela azpimarratu behar da. Aspaldian, Estatu Espainiarrean argitaratzen diren aldizkarien artean, zabalkunderik handiena duen mendi-aldizkaria da, lansaririk jasotzen ez duten laguntzaile eta kolaboratzaileen bidez egin ohi dena.*

*Aitzindaria izan den eta izaten jarraitzen duen aldizkari honek bere filosofiari eutsi dio beti, baina teknologia berriek dakartzaten aurrerapenei muzinik egin gabe. Horrela, urte hauetan guztietan aldizkariak aldaketa asko izan ditu, bere itxura hobetu eta modernizatzeko urrats garrantzitsuak eman ditu, formatuaren aldaketa edo bere edukietan kolorea sartzea besteak beste. Atzera begiratzeaz gain, geroa lantzeari ekin dio beti.*

*Filosofia horri eutsiz, 2008aren hasieran, Pyrenaicaren lehen 201 aleak (1929-2000) digitalizatu eta sarean jarriko ditugu aldizkariaren webgunean (www.pyrenaica.com). Aldizkaria guztion eskura jartzera bultzatu gaituzten helburuak honako hauek dira: lehena, urtetan bildu den fondoa eta erabiltzailearen artean bitartekoa izatea informazio hori era azkar, erraz eta eraginkorrez eskuratzeko moduan jarriz; bigarrena, berriz, oinarrizko dokumentuak zaindu, gorde eta babestea; eta azkenik, urteetan bildutako dokumentazioak ahal den eta zabalkunderik handiena izatea.*

*Erabiltzaileak modu errazean eskuratu ahal izango du behar duen informazioa. Euskaraz eta gazteleraz garatuta dagoen hemerotekan eta artikulu bilatzaile baten bidez, titulu, eduki, egile, urte edota aleak zehaztuz eskatutakoa pantaila aurrean azalduko da html formatuan (azkar irakurtzeko) eta pdf formatuan (kalitatez inprimatzeko).*

*Urrats hau emanez, esan dezakegu 80 urteko historia luze eta aberatsa duen aldizkari hau iraganari eta geroari begira jarri dela eta dagoeneko aldizkaria guztion eskura dagoela.*

# Pyrenaica al alcance de todos

SEGUIMOS avanzando. De ahora en adelante los lectores de Pyrenaica podremos utilizar el patrimonio de la revista sin límites.

El siglo XXI ha marcado el comienzo de la digitalización. Con el paso del tiempo las bases de datos documentales van aumentando, están cambiando los tipos de relación con el ordenador y los sistema multimedia tienden a digitalizarse. Por todo ello, si queremos encontrar nuestro sitio en la llamada Sociedad de la Información y la Comunicación, es imprescindible analizar y profundizar en los diferentes retos que plantea el mundo informático.

Desde que en el año 1926 comenzara a editarse Pyrenaica, y a pesar de que ésta haya sufrido tres interrupciones, hemos de subrayar que la revista ha sido la portavoz del montañismo vasco a lo largo del siglo XX. Entre las publicaciones del Estado Español es la revista de montaña que mayor difusión tiene, elaborada por colaboradores que siempre han participado de una manera desinteresada.

Esta pionera publicación siempre ha sido fiel a su filosofía, pero sin menospreciar las ventajas que hoy en día aportan las nuevas tecnologías. De esta manera y a lo largo de todos estos años, la revista ha conocido sucesivos cambios, ha dado importantes pasos en la mejora y modernización de su aspecto, cambiando el formato o introduciendo el color, por ejemplo. Siempre ha acometido los retos que plantea el futuro sin perder de vista el pasado.

Aferrándose a esa filosofía, a partir del próximo año 2008, los primeros 201 ejemplares de Pyrenaica (1929-2000) estarán a vuestra disposición desde la página web de la revista (www.pyrenaica.com). Éstos han sido los objetivos que nos hemos marcado a la hora de poner al alcance de todos la revista: primero, ser intermediario entre el lector y el fondo creado, de forma que el acceso al mismo sea lo más rápido, sencillo y eficaz posible; segundo, conservar, preservar y proteger los documentos originales; y por último, conseguir la mayor difusión posible de la documentación recopilada a lo largo de todos estos años.

El usuario podrá acceder a dicha información de una manera sencilla, tanto en euskera como en castellano. En la hemeroteca y a través de un buscador de artículos, y detallando título, contenido, autor, año o ejemplar aparecerá la información en la pantalla tanto en formato html (para lectura ágil) como en formato pdf (para imprimir con calidad).

Con este importante paso, podemos decir que Pyrenaica, con 80 largos años de historia, mira tanto al pasado como al futuro poniendo la revista al alcance de todos.

Mikel Arrizabalaga